


“Olentzero eta Amilaren sekretua” Zinemaldian argitzen hasiko da



Bárbara Goenaga, Jon Plazaola eta Gorka Aginagalde gure antzezle ezagunenetarikoak buru izango dituen talde batek prentsaurrekoa eskainiko dute datorren irailak 22an Keler egoitzan arratsaldeko 5etan.

Filmeko pertsonaiei ahotsa eman dieten antzezle biak ez dira bakarrik izango. Bertan izango dira ere Gorka Vázquez zuzendaria, Egoitz Rodríguez ekoizlea eta Juana Mari Saénz, FEDER Euskadiko ordezkaria.


Olentzeroren gure 5. film honek gaixotasun arraroen elkartearen (FEDER) ezinbesteko kolaborazioa izan du bai ekoizpenean bai eta gidoiean ere (Xegun Altolagirre, Gorka Vázquez eta Roberto Alfaro). Laguntza honi esker istorio zoragarri bat sortu dugu, alegiazko mundua eta ezagutzen dugun mundua lotzen dituen istorio magikoa. Gaixotasun arraroak pairatzen dituzten haurren mundu horretara gerturatzeko uztarketa hau sentikortasun handiarekin egin da, alegiazko istorio baten bidez, ametsen mundu batera jauzi eginez.

Pertsonaiak gizatasunez betetzea lortu duten antzezleen garrantzia ezin aipatu gabe utzi. Beraiek izan dute pelikulako pertsonaiak bizitasunaz eta energiaz betetzeko ardura. Gaixotasun arraroak pairatzen dituzten pertsonaiak. “Kristalezko hezurren” gaixotasuna duena eta mundu errealean erreferentziak dituena. Prentsaurrekoan izango diren antzezleaz gain, Miren Iburgurenak eta Gorka Otxoak ere parte hartu dute bikoizketa lanetan.

Olentzerok, gure haurtzaroko euskal imaginarioko erreferentziazko pertsonaiak, modu honetan heltzen dio hain sentikorra eta unibertsala den gai honi. Desdramatizatzea du helburu, gerturatzea, gure inguruan dagoen mundu hori ezagutu araztea, sentsibilizatzea. Hori da gure Olentzero berriaren balio erantsia, balio unibertsalen transmisioan betiko laguna.

Pelikula oraindik ekoizpen prozesuan dago, post produkzioan hain zuzen ere. Hala ere, berehala ikusi ahal izango dugu filmaren trailerra, bai eta filmaren abestia ere.

Irailaren 22an bertan filmaren web-ean eskuragarri izango dira euskaraz eta gazteleraz.



BÁRBARA GOENAGA MIREN IBARGUREN GORKA OTXOA JON PLAZAOLA GORKA AGINAGALDE

OLENTZERO

eta Amilaren Sekretua



BALEUKO, TALAPE eta DRAFTOON -ek ekoiztutako filma

Zuzendaria
GORKA VÁZQUEZ

Ekoizle Eragilea
JONE LANDALUZE eta KARMELO VIVANCO

Zuzendari Artistikoa
PATXI PELÁEZ eta GORKA VÁZQUEZ

Produkzioa
IDURRE CAJARAVILLE eta MAITE ARROITA

Animazio Zuzendaria IKER ÁLVAREZ

Argitazpen Zuzendaria IÑAKI MADARIAGA eta SANTIAGO O'SHEA

Zuzendari Teknikoa MIKEL DONÉS

Muntaia GORKA VÁZQUEZ

Musika JOSERRA GUTIÉRREZ

Gidoia XEGUNDO ALTOLAGIRRE, GORKA VÁZQUEZ eta ROBERTO ALFARO

www.elsecretodeamila.com / www.olentzeroetaamilarensekretua.com



Sinopsia

Amila, hainbat “osasun arazotxo” izan dituen 9 urteko neskatu bat da. Arazotxo hauek ospitalean aste batzuk igaro beharra eragin diote. Bertan ditu lagunak onenak. Fede, Mai eta Pelox. Fedek osteogenesis inperfektua du, , kristalezko hezurak bezala ezagunagoa; Mai Federen arreba da eta Pelos bere muin transplantarean zain dago, leuzemia du.



Ospitalean egunak luze eta aspergarriak badira ere, gure lagunak dibertitzen saiatzen dira, eta bai lortu ere. Izan ere, dibertitze horretan badute aliatu bat, Lorentzo, ospitaleko mantenu arduraduna.



Baina bat batean guztia aldatuko da. Izaki mitologikoen lurraldean zerbait larria gertatzen ari da. Tasuri, izaki maltzur batek, Mariri, izaki guztien jainkosari, agintea kendu nahi dio, eta horretarako plan zital bat dauka: azken lamiaren urrezko orrazia bereganatzea: Amilaren orrazia. Tasurik badaki orrazi hau bereganatzen badu, Mari bera baino boteretsuagoa izango dela, eta inork ezingo duela gelditi arazi.



Horrela hasten da bi munduen artean bidaiatu araziko gaituen abentura hau; hain fantastikoa den hau, gurea, eta hortxe bertan dugun bestea. Gure sinesmenak, gure alegiazko bizipenak, gure ametsak gordetzen dugun hori: mundu mitologikoa.



Baina... nola amaituko ote da istorioa? Bi mundu horiek, egiazkoa eta imaginarioa banatzen dituen marra estu horretan aurkituko dugu erantzuna. Sinestea da baldintza bakarra.

